

## EKINN+ 2026 PROGRAMA: ENPRESA-EKIMEN BERRITZAILEAK SORTU ETA HAZTEKO PROGRAMAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK.

### ATARIKOA

Donostiako Sustapen Sozietateak, Donostiako berrikuntza agentzia den aldetik, 2025ean sendotu egin du hiriaren berrikuntza erreferente bihurtzeko apustua, eta lankidetzan publiko-privatuan, zerbitzuen pertsonalizazioan eta ezagutzan intentsiboak diren sektoreetan oinarritutako eredia izateko apustua.

Horrek esan nahi du pertsona, enpresa eta proiektu berritzaileei laguntzeko apustua egiten dela, zerbitzuen pertsonalizaziotik eta kalitatetik abiatuta, eta foku estrategiko argi batekin, hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan arituz, berrikuntza publikoa eta ekintzailetza berritzailea indartzeko, eta hiria hub berritzaile gisa proiektatzeko.

Testuinguru horretan, berrikuntza bultzatzea eta hiriko enpresa-proiektu berritzaileak haztea da Donostiako Sustapena hiriaren garapenerako oinarri gisa garatzeko lehentasunetako bat.

Gaur egun, 15.400 enpresa baino gehiagoko enpresa-parkea du hiriak, hau da, 81 enpresa/1.000 biztanleko. Horrela, Donostia da Espainian enpresa dentsitate handiena duen laugarren hiria, Bartzelona, Madril eta Valentziaren atzetik, eta beste hiriburu handi batzuen aurretik, hala nola Malaga, Sevilla edo Bilboren aurretik.

Donostiako enpresa parkearen bilakaerari erreparatuz gero, nabarmentzekoa da Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak (SEIC) hiriaren motor ekonomiko gisa finkatu direla. Sektore horrek 6.300 establezimendu baino gehiago zituen 2024an, eta udal BPGari % 48 egiten zion ekarpena. SEICen gero eta garrantzi handiagoak, beste faktore batzuekin batera, erraztu du Donostiako AENak (Jarduera Ekintzailearen Tasa) hazkunde jarraitua izatea 2018tik, eta 2024an azken historiako mailarik altuena lortzea, % 7,9.

Aldi berean, hiriak enpresa txikiak nagusi diren enpresa-sarea izaten jarraitzen du; izan ere, ehunaren % 71,9 1-2 langileko enpresak dira, eta % 91,3k 1-9 langile dituzte.

Erronka horiei erantzuteko, besteak beste, 2025ean Donostiako Sustapenak berrikuntzaren eta ekintzailetzaren aldeko apustu estrategikoa indartu zuen, 6 milioi euroko zuzkidurarekin. Hala, 972 pertsonak ( % 51,4 emakumeak eta % 45 35 urtetik beherakoak) parte hartu dute ekintzaileei laguntzeko zerbitzuetan 2025ean. Babestutako 224 proiektu ekintzaile berrietatik, gutxi gorabehera erdiak oso berritzaileak dira ( % 51), eta Donostiako Sustapenak ezagutzan eta biozientzietan intentsiboak diren zerbitzuen sektoreetarantz duen estrategia islatzen du.

2026an, Donostiako Sustapenak hirian enpresa proiektu berriak sortzen laguntzearen alde egiten jarraitzen du, hazkunde ekonomikoaren eta tokiko enplegua sortzeko motor gisa.

Hori dela eta, Donostia Sustapenak hainbat programa eta neurri antolatu ditu, bai enpresa berritzaileen sarea bultzatu eta sendotzeko, baita enpresa proiektu berritzaile berriak garatzeko ere; hori guztia, hiriaren hazkunde lehiakorra bere I+G ekosistemaren bidez bultzatzeko asmoz.

Testuinguru horretan planteatzen dira laguntza hauek, berrikuntzaren eta talentuaren garapenaren aldeko apustua oinarri hartuta, Donostiako enpresa berritzaileek –beren produktu, zerbitzu edo prozesuetan ikerkuntza jardueratik edo merkatuaren ezagutzatik lortutako jakintza txertatzen eta negozio estrategia teknologiararen garapenean eta erabilera intentsiboan oinarritzen dutenek– sustatutako enpresa proiektuen hazkunderako.

Testuinguru horretan, Donostiako Sustapenak **Ekinn+** programa sortu du, planteatutako erronka berriei erantzuteko, zerbitzu aurreratuak, aholkularitza espezializatua eta dirulaguntzak eskainiz, gure hirian egitasmo berriak eta gazteen egitasmoak bultzatzeko helburuarekin. Programa 2014an ezagutarazi zen, eta gaur egun duen forma 2017an hartu zuen.

2017tik aurrera, EKINN+ programak bultzatutako proiektuak batez ere teknologia digitalen arloan kontzentratu dira; izan ere, ekimenen %35 inguru sektore horri dagozkio. Ondoren, bioosasunaren eta bioteknologiaren sektoreak daude, proiektuen %30 ingururekin. Gainerako proiektuak jasangarritasuna, energia eta industria aurreratua bezalako esparruetan banatzen dira. Banaketa horrek erakusten du programak teknologiarekin lotutako eta balio erantsi handiko sektoreen alde egiten duen apustua.

EKINN+ programa sektore anitzekoa bada ere, 2021ean, Biogipuzkoa Ollrekin izandako lankidetzari esker, osasun eta ospitale-berrikuntzaren arloko proiektuei espezializazio handiagoa eskaini ahal izan genien.

Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutuaren jarduerari dagokionez, honako helburu hauek ditu: ikerketa biomedikoa, epidemiologikoa, eta osasun publikoaren eta osasun zerbitzuen aldeko ikerketa sustatzea; osasun sistemako programei eta politikiei oinarri zientifikoa ematea eta bereziki ikerketa traslazonala sustatzea, betiere ezagutza zientifikoa praktika klinikora eramateko prozesua bizkortzeko, nazioarteko gomendioei jarraikiz, Gipuzkoako lurralde eremuan, Osakidetza / Euskal Osasun Sistemarekiko lankidetzari hitzarmenen bidez, horien helburua institutuan garatzen den I+G+b jardueraren kudeaketa eta ikerketari eta berrikuntzari buruzko formakuntza enkargatzea izanik.

## XEDAPENAK

### 1. ARTIKULUA. XEDEA

EKINN+ programaren helburua Donostian startup-en sorrera eta hazkundera sustatzea da, ekintzaileei eta hasierako faseetan dauden proiektuei laguntza eta bidelaguntza eskainiz. Programak ekimen berritzaile, eskalagarri eta inbertsio-potentziala dutenen balidazioa, abiaraztea, finantzaketa eta heldutasun-prozesua babesten ditu; aldi berean, errendimendu handiko komunitate ekintzailea sustatzen du eta ekimen berrien eta tokiko enpresa traktoreen arteko harremanetarako guneak sortzen ditu.

Irtenbide berritzaileak aurkezten dituzten enpresa-proiektu berriei laguntza ematea da jomuga, bai orokorrean, bai eraldaketa ekonomiko eta sozialari erantzuna ematen laguntzen dutenei.

EKINN+ programaren barruan sektore guztietako proiektuak biltzen dira, baita bioosasunaren eta ospitale-arloaren esparruko proiektu espezifikokoagoak ere, OII Biogipuzkoarekin lankidetzan landuko direnak.

EKINN+ programa honako hauei dago zuzenduta:

- **Ekintzaileak**, eskaera aurkeztu ondoren Donostian eratuko den enpresa-proiektu berritzaile eta/edo oinarri teknologikoko bat dutenak.
- **Enpresa berritzaileak eta/edo oinarri teknologikokoak, Donostian kokatuak eta sortu berriak**, enpresa-proiektu berritzaile bat eta gehienez 5 urteko antzinatasuna dutenak. Sektore jakin batzuetan, batez ere bioosasunaren arloan, 7 urtera arteko antzinatasuna ezarri ahal izango da.

Nolanahi ere, Sustapenak beste antzinatasun bat zehaztu ahal izango du proiektu jakin batzuetarako, hala iritziz gero.

- **Enpresa txikiak, I+G arloko produktu/teknologia dibertsifikatzeko prozesu intentsiboen esparruan enpresa-proiektu bat abian jarri nahi dutenak (barne-ekintzailletza).**
- **Ezagutza sortzeko eragileen *spin off*ak** (ikerketa-zentroak, teknologia-zentroak, unibertsitateak, etab.), garatutako aktibo teknologikoak merkaturatzeko eta transferitzeko.

EKINN+ programa laguntza-tresna integral gisa aurkezten da, eta honako ildo hauek ditu:

- 1) **EKINN+ Aholkularitza:** adituen laguntza eta laguntza-zerbitzu osagarriak. EKINN+ Osasuna gisa hautatutako proiektuen kasuan, osasun-berrikuntzaren arloko *mentoring* espezializatua ere izango dute, Biogipuzkoa OIIren eskutik.

- 2) **Prestasun-laguntza:** EKINN+ aholkularitza fasean ezarritako helburuak lortzeko behar den dedikazioa ahalbidetzeko laguntza ekonomikoa.
- 3) **EKINN+ Laguntza:** enpresa-proiektuen azelerazioan eragina duten gastuak ordaintzeko laguntza ekonomikoa.
- 4) **Lan-espazioetarako sarbidea:** Donostia Sustapeneko eraikin eta enpresa-zentroetan.
- 5) **Elkargi Abal Funtserako sarbidea.**
- 6) **Ostatua/etxebizitza eskuratzea:** Donostia Sustapenak dituen eraikinetan, eta Donostiako gazteentzako Talent Egoitzak programan edo Sustapenak helburu horrekin abian jar ditzakeen beste programa batzuetan ezarritako baldintzak beteta.
- 7) **EKINN+ Komunitatean sartzea**
- 8) **Proiektua proiektu berritzaile gisa baliozkotzea** EKINN Talent eta Bonu teknologikoak enpresa-proiektu berritzaileentzako laguntzen deialdiaren urtean zehar.

## 2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak HIRUREHUN MILA (300.000) euro bideratuko ditu EKINN+ programara. Zenbatekoa aldatu ahal izango da Donostia Sustapenak hala erabakitzen badu.

## 3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduntzat joko da dirulaguntza jaso duen jarduera egin behar duena edo dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, baldin eta oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen baditu eta, batez ere, laguntza mota bakoitzari dagozkionak.

Laguntzen onuradun izan daitezke Estatuko edo atzerriko pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, bai eta aurreko horietako nortasunik gabeko taldeak ere, ordenamendu juridikoaren arabera balio osoz eratuak, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Kanpoan geratzen dira ondare-sozietateak; Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluaaren arabera definitzen dira.

Oinarri hauetan zehaztuko da zer baldintza bete behar diren laguntzak eskatzeko eta nola egiaztatu. Nolanahi ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da, eta artikulua hori, ondorio horietarako, aplikagarritzat jotzen da esanbidez.

Ezin izango zaie laguntza eman pertsona fisiko edo juridikoei, baldin eta:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez badituzte.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren ebazpen irmo baten bidez zehatuak izan badira, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean badaude, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera sexuan oinarritutako diskriminazioagatik zehatutakoak barne. Horrez gain, ezin izango dira onuradun izan dagokion zehapenean ezarritako aldiaren sexuan oinarritutako diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penalik jaso duten pertsona fisiko edo onuradunak. Era berean, ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten baina ez duten enpresek, ez eta sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuko legeriak ezarritakoaren arabera.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorrak badituzte.
- Aurretik emandako laguntzak osorik edo zati batean itzuli gabe badituzte, itzuli beharreko zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen ez den bitartean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako dokumentuak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egin ezean; kasu horretan, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun-aplikazioaren bidez, informazio hau zuzenean kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei, prozedura ebatzi eta ordaintze aldera:

- Udalarekiko eta Donostiako Sustapenarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.
- Onuradunaren eta sustatzaileen ekonomia-jardueren gaineko zergaren historikoa.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzeko unean udal zerga-bilketa, Foru Ogasuna eta/edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden onuradunek betebeharrak horiek egunean dituztela egiaztatu beharko dute HAMAR (10) egun balioduneko epean, jakinarazten zaienetik zenbatzen hasita.

#### 4. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Oro har, onuradunek baldintza hauek bete behar dituzte deialdian parte hartzeko:

- a) Donostian garatuko diren enpresa-proiektu berritzaile eta eskalagarriak aurkeztu behar dira.
- b) Eskatzaileak konpromisoa hartu behar du programa hau garatzeko ibilbide-orrian eskatutako eta hitzartutako denbora erabiltzeko. Denbora hori, gutxienez, pertsona baten lanaldi oso baten baliokidea izango da, 4 hilabetez, proiektuari lotutako pertsona baten edo batzuen artean egin beharrekoa.

Eskabidea aurkezten den unean beste azelerazio-programa batzuetan parte hartzen ari diren proiektuek, edo EKINN+ programa garatu bitartean halakoetan parte hartuko dutenek, Donostia Sustapenari jakinarazi beharko diote, eta hark ahalmena izango du programaren baldintzak aldatzeko kasu jakin horretarako, edo, are, ezezkoa emateko.

Gainera, programan parte hartzen duten pertsonak programa honen esparruan antolatzen diren aurrez aurreko saioetara ahalik eta gehien joateko eta modu aktiboan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute. Saio horiek prestakuntza-jarduerak, networking ekitaldiak, komunikazio-ekintzak, mentoring saioak, banakako edo taldeko aholkularitzak eta parte hartzen duten proiektuen garapena eta hazkundea sustatzera bideratutako beste edozein jarduera izan daitezke.

- c) Hauetako bat izan behar dute:
  - a. Ekintzailtza-prozesuan dauden pertsona fisikoak.
  - b. Irabazizko jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisikoak edo pertsona juridikoak.
  - c. Aurreko horietako nortasunik gabeko taldeak, ordenamendu juridikoaren arabera balio osoz eratuak.
- d) Irabazizko jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisikoek, pertsona juridikoek, edo ordenamendu juridikoaren arabera balio osoz eratu diren aurreko horietako nortasunik gabeko taldeek baldintza hauek bete behar dituzte eskaera egitean:
  - i) *Start-up* bat izatea: enpresa berritzailea eta/edo oinarri teknologikoa, negozio-eredu eskalagarriekin.
  - ii) Laguntzaren xede den jardueraren helbide fiskala eta/edo lantokia Donostian egotea.
  - iii) Ekonomia-jardueren gaineko zergaren hasierako alta, edo, bestela, zentsu-aitorpenaren alta, eskaera aurkeztu baino 5 urte lehenago egin beharko da gehienez, eta, bioosasunaren arloan, 7 urte lehenago gehienez. Donostia Sustapenak salbuespen gisa baimendu ahal izango du alta-data desberdina duten eskatzaileen partaidetza.

iv) Gainera, alderdi hauek bete beharko dituzte:

1. Aktiboa 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea edo eragiketa-bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunean definitzen den bezala, 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea.
2. Langileen batez bestekoa 50 langilera ez iristea. Langileen batez bestekoa kalkulatzeko, urte bakoitzeko lanaldi osoko langileak hartuko dira kontuan. Lanaldi partziala duten langileak lan egindako orduen arabera zenbatuko dira.

e) Proiektuak ez badu oraindik enpresa eratu, eraketa horretarako aukeratutako kokapena Donostia izango delako konpromisoa adierazi beharko du.

Adierazitakoa gorabehera, hauek ezin izango dira onuradun izan:

- Irabazi-asmorik gabeko fundazioak eta elkarteak.
- Sektore Publikoko erakundeen (hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasota daudenen), irabazi-asmorik gabeko erakundeen, ondare-sozietate eta/edo profesionalen elkargoen mende dauden erakundeak eta aipatutako horien % 25etik gorako partaidetza duten erakundeak, salbu eta apartatu honetan adierazitako baldintza betetzen ez duten pertsona juridikoak, baldin eta ez betetzeko arrazoia Zientziako, Teknologiako eta Berrikuntzako Euskal Sareko kide den erakunde baten mendekoa izatea edo horrelako erakunde baten partaidetza izatea bada, edota arrisku kapitaleko erakunde batek partaidetza badu.
- Deialdi honetan ezin izango dute parte hartu aurreko 3 urteetako deialdietan EKINN+ programaren eta EKINN+ Osasuna programaren onuradun izan diren proiektu edo erakundeek.

## 5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

1. **EKINN+ Aholkularitza**, bi fasetan:

- **Fase intentsiboa:** 4 hilabeteko iraupena
- **Jarraipen-fasea:** 6 hilabeteko iraupena

Fase horietan zerbitzu hauek eskainiko dira:

- Lanaren ibilbide-orria diseinatzea, lortu beharreko helburuekin eta garatu beharreko mugarriekin.
- Ezarritako helburuak lortzeko banakako tutoretza.

- Finantza-plana, negozio-eredua, nazioartekotzea, berrikuntza, *go to market* eta abar garatzeko aholkularitza pertsonalizatua eta espezializatua.
- Jabetza industrialaren eta intelektualaren estrategian, marketin eta komunikazioan, I+G+b finantzaketan, ingurune digitaletako datuen kudeaketan eta abarren espezializatutako aholkularitza.
- Aholkularitza espezializatua eta laguntza inbertsioaren eta, oro har, *fundraising*aren arloan: inbertsio-proposamenak (*deck*) eta *investment readiness* arloko gainerako jarduketak prestatzea, mota guztietako erakunde finantzaizaileentzako finantzaketa proposamenak, dirulaguntzak edo I+G arloko zerga pizgarriak emateko edo transferitzeko tresnak (64 bis, *Tax Lease*, *Patent box*, etab.) kudeatzen dituzten erakundeentzako proposamenak, inbertitzaileekin harremanetan jartzea (*family offices*, arrisku kapitaleko erakundeak, etab.).
- Tokiko, eskualdeko, Estatuko eta nazioarteko inbertsio-industriarako sarbidea, kapitalizazio-beharrak asetzeko.

Osasuna arloan hautatutako proiektuek eta zerbitzu honekin bat datozenak, gainera, adituen **mentoringa izango dute osasunaren arloan, Biogipuzkoa OI**ko ikertzaileen bitartez:

- Lagun egiteko prozesua, osasunaren arloko profesionalekin egiten diren elkarrizketetan esperientziak eta ikasitakoa sektoreko adituekin partekatuz, enpresa proiektua praktika klinikoan aplikatzeari buruzko orientabideak jasotzeko.
- Proiektuaren aplikazio-eremuarekin lotutako jarduera-datuak ematea.
- Osasun-arloko garapenen ibilbide-orriari buruzko orientazioa.

## 2. Prestasun-laguntza

**5.000 euroko laguntza ekonomikoa**, EKINN+ aholkularitza fasean ezarritako helburuak lortzeko behar den dedikazioa ahalbidetzeko.

Donostia Sustapenak aldeko txostena jaso beharko du programan esleitutako mentorearen aldetik. Programaren fase intentsiborako ezarritako mugariak betetzen direla balioetsiko du.

## 3. EKINN+ Laguntza

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa **20.000 euro** izango da, eta % 100ean lagundu ahal izango da diruz. Laguntza justifikatzeko unean legez eratuta eta ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda dauden enpresak baino ezingo dira izan EKINN+ laguntzaren onuradun.

Diruz lagunduko diren kontzeptuek lortura izan beharko dute merkatuan haztea eta eskala handitzea ahalbidetzen duten inbertsioekin, eta haien eragin potentziala aurkeztutako memoria teknikoan islatzeko modukoa izango da, itzuli beharrik gabeko prestasun-laguntzaren kasuan izan ezik.

### 3.1. FINANTZAKETA ESKURATZEA

Diruz lagungarriak izango dira kanpoko aholkularitzarekin eta inbertsioarekin lotutako kontzeptuak, enpresari merkatuan haztea eta eskala handitzea ahalbidetzen dion finantzaketa lortzearekin zerikusia dutenak.

Laguntza-kontzeptu honetan justifikatutako diruz lagun daitezkeen kontzeptuek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) Finantzaketa-errondak: finantza- eta/edo lege-aholkularitza.
- b) Europako edo CDTIko laguntzak edo antzekoak.
- c) I+G fiskalitatearen bidez finantzatzeko tresnak (64Bis eta Tax Lease)
- d) Donostia Sustapenak baliozkotu beharreko beste finantzaketa-bide batzuetarako aholkularitza.

### 3.2. BERRIKUNTZA PRODUKTUAN EDO ZERBITZUAN: lehen produktua edo produktu berri bat garatzea

Berrikuntzarako aholkularitza eta laguntzarako eskatu ahal izango da dirulaguntza, honako hauek bideratzeko: ikerketa- eta garapen-proiektuak, produktu berriak garatzeko tresnak eta materiala eskuratzeko inbertsioak, kanpoko adituen txostenak, ziurtagiriak eta auditoretzak.

Laguntza-kontzeptu honetan justifikatutako diruz lagun daitezkeen kontzeptuek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) I+G aholkularitza eta laguntza teknologikoa.
- b) Produktua merkaturatu ahal izateko nahitaezko ziurtagiriak: produktu sanitarioaren edo antzekoaren CE marka.
- c) Pilotuak eta saiakuntza-probak garatzeko aktiboetako inbertsioak, I+Grako soilik.

### 3.3. I+G BABESTEIA

Laguntza ezagutza teknikoaren ikerketak eta/edo garapena kontratatze eta aholkularitzarako eskatu ahal izango da, baita kanpoko iturriekiko lizentzia akordio bidez merkaturatu ez diren eskuratutako patenteak erosteko eta jabetza industrial eta/edo intelektualaren eskubideak eskuratu, babestu eta saltzeko aholkularitzaren kostuetarako ere.

Laguntza-kontzeptu honetan justifikatutako diruz lagun daitezkeen kontzeptuek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) I+G babesteko aholkularitza.
- b) I+G babestea lortzeko inbertsioak.

### 3.4. MERKATUAK GARATZEA

Merkatuak garatzeko aholkularitza eta laguntzarako eskatu ahal izango da laguntza.

Laguntza-kontzeptu honetan justifikatutako diruz lagun daitezkeen kontzeptuek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) Misio zuzenak eta alderantzizkoak, Estatukoak edo nazioartekoak.
- b) Estatuko edo nazioarteko azoketara joatea.
- c) Merkataritza-ekintza baterako sustapen-materiala.
- d) Merkatuaren garapenaren plangintza estrategikoa.
- e) Merkatua garatzeko akordio eta aliantza estrategikoak: merkataritza- edo banaketa-ordezkaritzako erakundeekin kontratua.
- f) Egoitza eta merkatu berriak irekitzearen bideragarritasun-azterlanak.
- g) Herrialde berrietara sartzeko eta merkataritza-kontaktuak sortzeko azterlana.

Proiektuarekin lotura zuzena duten bidaija-gastuen eta dieten kasuan, guztiz justifikatu beharko da bidaiaren eta proiektuaren helburuen arteko lotura, eta gauzatzeko epearen barruan egin beharko da. Proiektua burutzeko aurreikusi diren langileei dagozkienean bakarrik onartuko dira gastu mota horiek, izenez identifikatuta badaude.

### 3.5. PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA

Proiektu berritzailearekin lotutako langileen prestakuntza espezializatuko gastuetarako eskatu ahal izango da laguntza, *business management*, diseinu eta teknologiarekin lotutako gaitetan.

Kasu guztietan, aholkularitzak, azpikontratazioak eta antzekoak egin direla egiaztatu ahal izateko entregagaiak identifikatu beharko dira, onetsitako proiektuaren arabera.

## 4. Lan-espazioetarako sarbidea

EKINN+ programaren onuradunek lan egiteko espazioak eskatu ahal izango dituzte, bai Donostia Sustapen-eko enpresa-zentroetako batean bulego propio baten bidez, bai EKINNen lanerako espazioak unean-unean erabiltzeko aukeraren bidez, betiere eskaera egiten den unean dagoen erabilgarritasunaren eta programaren jardueratik eratorritako beharren arabera.

Donostia Sustapen-eko enpresa-zentroetako batean bulego propioa izanez gero, kostu errearen gaineko hobari bat aplikatuko da, gutxienez urtebetez mantenduko dena. Hobari hori espazio motaren, iraupenaren, beharren eta erabilgarritasunaren arabera zehaztuko da. Kontsumo-gastuak banakakoak izango dira eta ez dute hobariarik izango. Halaber, indarrean dagoen araudia aplikatuko da espazio komun eta lotutako bestelako zerbitzuen erabilerrari dagokionez.

EKINNen espazioak unean-unean erabiltzeko aukera bilerak, lan-saioak, mentoring saioak, programarekin lotutako jarduerak edo bestelako behar zehatzak egiteko gaituko da, betiere dagoen erabilgarritasunaren arabera.

Eskatutako espazioen kopuruak eskuragarri daudenak gainditzen baditu, esleipena eskaera-ordenaren arabera egingo da.

## 5. Elkargi Abal Funtserako sarbidea

Sustapenak finantzaketa behar duten proiektuak aurkeztu ahal izango dizkio Elkargiri, indarrean dagoen hitzarmenaren esparruan.

Donostia Sustapenak eragiketak aurkezten lagunduko du abalen bidezko finantzaketa behar duten proiektuetarako. Donostia Sustapenak elkarren bermerako lankidetzahitzarmena du Elkargirekin, proiektu berritzaileetarako finantzaketaren arloan. Beraz, Elkargik onartzen dituen eragiketek hitzarmen horretan jasotako baldintzak baliatu ahal izango dituzte.

## 6. Ostatu/etxebizitza eskuratzea

Proiektuaren sustatzaileek eta programa honen onuradunek Donostia Sustapenaren eraikinetako batean bizi ahal izango dute.

Horretarako, “Donostiako gazteentzako EKINN egoitzak” programan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte, edo Sustapenak helburu horrekin zehaztu ditzakeen beste batzuk. Hura eskuratzeko baldintzak deialdi bakoitzean arautuko dira.

## 7. EKINN+ Komunitatean sartzea

Onuradunak EKINN+ Komunitatean sartuko dira. Bertan, proiektuen hazkunderako interesgarriak diren gai berriak landu eta informazioa jasoko dute, baita proiektuak ikusarazteko eta proiektuak lankidetzan eta *networking*ean sortzeko ere.

## 8. Proiektua proiektu berritzaile gisa baliozkotzea

Programa honen onuradun diren proiektuak proiektu berritzaile gisa baliozkotuko dira EKINN Talent (langile kualifikatuak kontratatzeko) eta Bonu teknologikoak (transferentzia teknologikorako) laguntzetarako deialdiaren urtean zehar.

Nolanahi ere, onuradunen baldintzak eta laguntzen oinarri arautzaileen araberako baldintzak bete beharko dituzte. Halaber, laguntzak epe barruan eta behar bezala eskatu beharko dituzte.

## 6. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik helburu bererako emandako beste edozeinekin, baldintza hauek betetzen badituzte:

Laguntza horien azken hartzaile guztiek, bai jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoek (autonomoek), bai pertsona juridikoek, nahitaez bete beharko dituzte Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako baldintzak eta mugak laguntza horiek emateko (erregelamendu hori Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari dagokio).

Hori horrela, azken hartzaile bakoitzari eman ahal izango zaizkion *de minimis* laguntzen zenbateko osoa ezingo da izan 300.000 €-tik gorakoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan. Ondorio horietarako, araubide honen eraginpean daudenek erantzukizunpeko berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute hiru ekitaldi fiskaletan jasotako laguntzei buruz, dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan dagokion muga kuantitatiboa betetzeari dagokionez. Zenbaketa horretarako, laguntza emateko unea hartuko da kontuan.

Dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza gordinaren zenbatekoaren baliokidea jakinaraziko zaio onuradunari, de minimis mugaren ondorioetarako.

Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera jasotako laguntzaren zenbatekoa ezin izango da inola ere izan, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Eskabidea aurkezten den unean beste azelerazio-programa batzuetan parte hartzen ari diren proiektuek, edo EKINN+ programa garatu bitartean halakoetan parte hartuko dutenek, Donostia Sustapenari jakinarazi beharko diote, eta hark ahalmena izango du programaren baldintzak aldatzeko kasu jakin horretarako, edo, are, programa eteteko.

## 7. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Laguntza honen deialdia dirulaguntzen datu-base nazionalean argitaratuko da eta, ondoren, horren laburpena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Laguntzen eskaerak laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik **deialdia itxi arte** aurkeztu ahal izango dira, hau da, **2026eko urriaren 30era arte**.

Eskaera egiteko epea amaitutakoan, soberakinik badago edo zuzkidura ekonomikoa handitzen bada, eta Donostia Sustapenak hala irizten badio, oinarri hauek aldatu eta eskaera egiteko epea luzatu ahal izango du (kasu horretan, dagozkion bideetan argitaratuko da).

Eskaerak modu telematikoan egin beharko dira, Donostia Sustapenaren webgunearen bidez ([www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus)).

Eranskinak osorik bete beharko dira, eta behar bezala sinatu beharko dira sinadura digitalarekin.

Informazioa jaso edo kontsulta egin nahi izanez gero, deitu 943 482800 telefono-zenbakira edo idatzi fomentoss@donostia.eus helbide elektronikora; hau ipini mezuaren gain: "EKINN+ 2026 programa"

Eskaera aurkeztu aurretik zalantzak argitzeko arreta-zerbitzua eskaintzen du Donostia Sustapenak. Zerbitzu hori posta elektronikoz eskatu beharko da aipatu helbide elektronikoa, eta banakako edo taldeko saioetan eman ahal izango da, Donostia Sustapenak zehazten duenaren arabera eta proiektuen edo laguntzen tipologiaren arabera.

Eskaera-orriarekin batera, eskatutako administrazio-agiri guztiak eta dokumentazio teknikoa eta ekonomikoa aurkeztu beharko dira.

#### Administrazio-agiriak:

- **Eskaeraren eranskina**
- Laguntza eskatzen duen erakundearen **banku-datuen eranskina**, dagokion banku-erakundeak zigilatua, edo banku-dokumentu baliokidea, banku-erakundeak behar bezala zigilatua. Ekintzaileen kasuan, justifikazio-unean entregatuko da.
- Pertsona fisikoa bada, **eskatzailearen NANaren kopia**.
- Pertsona juridikoa bada, **eskatzailearen IFKren kopia** eta, hala badagokio, ahalduaren NANA.

Onuradunak bere gain hartzen du erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa.

Donostia Sustapenaren laguntza-programaren batean parte hartzeko dokumentu horietakoren bat aldeztu aurretik aurkeztu badute interesdunek, ez da beharrezkoa izango apartatu honetan eskatutako dokumentazioa berriro aurkeztea, baldin eta indarrean jarraitzen badu eta datuak aldatu ez badira.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzeko unean udal zerga-bilketa, Foru Ogasuna eta/edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden erakundeek betebehar horiek egunean dituztela egiaztatu beharko dute. Horretarako, Donostia Sustapenak zuzenketa-jakinazpen bat bidaliko du.

- **Memoria deskribatzaile teknikoa eta ekonomikoa ("Memoria tekniko" eranskina)**

Memorian, garatuko den proiektu berritzailea deskribatuko da. Informazio teknikoa eta ekonomikoa izango du. Proiektuaren diseinu orokorra erakutsi beharko du (faseen garapena, zereginak, arduradunak, kronograma, emaitza-adierazleak), eta argi eta garbi adierazi beharko du zein egoeratan dagoen. Apartatu hauek izango ditu:

1. Proiektuaren izenburua.
2. Eskatzailearen eta, kasua bada, sozietatearen identifikazio-datuak eta datu orokorrak: IFK, eratze-data, kapital soziala...
3. Proiektuaren aurrekariak eta beharrendaren justifikazioa, proiektua ebatzen duen arazoa eta produktua merkatura egokitzeko aurreikuspena adierazita.
4. Proiektuaren deskribapena eta helburuak:
  - a) Ekimenaren egungo egoera produktuaren eta teknologiaren/prozesuaren dimentsioan, aliantza estrategikoak edo lankidetzarako beste formula batzuk eta hornitzaileak barne.
  - b) Ekimenaren egungo egoera merkatuaren dimentsioan, honako hauek barne: *time to market*, merkatuaren karakterizazioa eta proposatzen duen negozio-eredua, segmentuen planteamenduak, balio-proposamena, banaketa eta komunikazioa, bezeroekiko harremana.
  - c) Ekimenaren egungo egoera dimentsio ekonomiko-finantzarioan eta legezkoan: inbertsioen aurreikuspena, finantzaketa-beharrak, monetizazio-eredua, etab.
5. Proiektuaren nazioarteko proiektzioa eta eskalagarritasun orokorra.
6. Proiektuaren fase nagusien eta garapenaren deskribapen laburra: lan-kronograma, jarraipena eta kontrol-adierazleak.
7. Ekimenaren funtzio-eremuetan epe laburrera jarduteko plan orokorraren definizioa: produktua/teknologia garatzea, marketina eta negozioaren garapena, araugintza-arloko beharrak betetzea, etab.
8. Lantaldearen deskribapena (barnekoa + kanpokoak).
9. Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa, eta espero diren emaitzak: Proiektuaren bideragarritasun tekniko, komertzial eta ekonomiko eta finantzarioaren defentsaren laburpena.
10. Proiektuaren eragin potentziala: proiektuak hiriaren ildo estrategikoekin eta Sustapenak sustatutako sektore estrategikoekin duen lotura

Memoria sinplea eta argia izango da; ez dira erabiliko proiektua ulertzea zailtzen duten teknizismoak. Informazio zehatza jasoko du, 9. artikuluan zehaztutako balorazio-irizpideak erabili ahal izateko. Gehienez 8 orrialdeko luzera gomendatzen da.

## 8. ARTIKULUA. ESKERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak dokumentazio guztia aztertu ostean, egiaztatzen bada ez dagoela beteta edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari akatsa zuzentzeko edo beharrezko dokumentuak aurkezteko eskatuko zaio **HAMAR (10) egun balioduneko epean**. Aditzera emango zaio, hala egiten ez badu, eskaera baztertu egingo dela, izapide gehiagorik gabe, eta, ondorioz, ebazpena emango dela. Administrazio-dokumentazioa eta laguntzaren dokumentazio espezifikoa zuzendu ahalko da. Donostia Sustapenak proiektuaren memoriari buruzko azalpenak eskatu ahal izango ditu, egoki iritziz gero.

Zuzenketak onuradunak harremanetarako email gisa ematen duen helbide elektronikoaren bidez jakinaraziko dira. (JAKINARAZPENETARAKO HELBIDE

ELEKTRONIKOA). Nolanahi ere, jakinarazpenak web-aplikazioan ere egongo dira eskuragarri, pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan.

Akatsak zuzentzeko eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko bide beretik aurkeztuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Donostia Sustapenak esanbidezko ebazpen bat emango du laguntzak emateko edo ukatzeko, eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Web-aplikazioan ere egongo dira eskuragarri jakinarazpenak, espedientearen barruan.

## 9. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN IZAPIDEAK ETA EBAZPENA

Laguntzak emateko prozedura norgehiagokakoa izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. artikuluan aurreikusia, printzipio hauen arabera: publikotasuna, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

Norgehiagoka bermatze aldera, proiektuaren memoria teknikoa eta ekonomikoa baliozko dokumentutzat jotzen da proposamenak ebaluatzeko.

Kanpoko adituek ebaluatuko dituzte eskabideak. Aditu horiek, gainera, onetsitako proiektuen egikaritzearen eta gastuen jarraipena egin ahal izango dute, bai eta oinarri arautzaile hauek aplikatzean azaleratzen diren gai guztiak ebatzi eta interpretatu ere.

Aurkeztutako proiektu guztiak honela ebaluatuko dira:

- Memoria teknikoaren eta ekonomikoaren balorazioa (“Memoria teknikoa” eranskina), gehienez 100 puntu, eta gutxienez 65 lortu beharko dira proiektua onartu dadin.

Donostia Sustapenak elkarrizketa bat eskatu ahal izango du, proiektua eta talde sustatzailea xehetasun gehiagorekin ezagutzeko, eta proiektuak hasieran lortutako balorazioa kontrastatzeko, adierazitako irizpideen arabera.

Proiektu bat onartu eta elkarrizketara igarotzeko, memoria tekniko eta ekonomikoaren balorazioari dagokionez eskatzen den gutxieneko puntuazioa (65 puntu) gaintitu beharko du.

Ezaugarri hauetakoren bat duten tokiko proiektuak izan beharko dute:

- Egungo merkatuarekiko edo gizartearekiko balio diferentziala.
- Teknologia, ezagutza eta/edo berrikuntzaren erabilera intentsiboa.
- I+G proiektuak.
- Produktu eta/edo zerbitzu berriak eta erabilgarriak.

- Daudenak baino eraginkorragoak diren eta gure hiriaren garapen sozioekonomikoan eragin handiagoa sortzen duten negozio-prozesuak edo -ereduak.
- Profil kualifikatuak dituzten eta balio erantsi handiko profil profesional berriak garatzen dituzten proiektuak.

Proiektuak balorazio-irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

<b>1. Ideiaren bideragarritasuna:</b> Merkatu argia eta zehatza erakustea, baita balio-proposamenaren lehiarako abantaila ere.	<b>40 puntu</b>
<b>2. Ideiaren egingarritasuna:</b> Talde sustatzailearen egokitasuna, ezagutza-maila, horren esperientzia, kapital erlazonala, proiektuaren garapenaren kronograma...	<b>30 puntu</b>
<b>3. Ekimenean inbertitzeko aukerak:</b> Maila handiagoan garatzeko eta epe ertainean diruzaintza-fluxuak sortzeko ahalmena (EXIT proiektuarena).	<b>25 puntu</b>
<b>4. Ekimenaren eragin soziala eta ekonomikoa:</b> Gizarte-, hiri- edo enpresa-erronka bati erantzuteko gaitasuna eta ingurunean eragin positiboa sortzeko ahalmena.	<b>5 puntu</b>
<b>PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA, GUZTIRA</b>	<b>100 puntu</b>

Eskabide bat hautatu ahal izateko, 65 puntu lortu beharko dira gutxienez; hortaz, baztertu egingo dira eskatutako gutxienerako puntuazioa baino puntuazio txikiagoa lortzen duten eskaerak.

Donostia Sustapenak gutxienerako puntuazio hori gainditzen ez duten baina 50 puntu edo gehiago lortzen dituzten proiektuen eskatzaileekin harremanetan jarri ahal izango du, proiektua behar bezala ulertu dutela egiaztatzeko.

Onetsitako proiektuak puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira, eta aipatu irizpideak aplikatuta baloraziorik handiena lortu dutenak adjudikatuko dira, deialdian kreditu erabilgarriaren barruan ezarritako muga kontuan hartuta. **Ebazpena emateko unean 25.000 euroko laguntza emango da onetsitako proiektu bakoitzeko.**

Bi eskaera edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, 1. ebaluazio-irizpidean puntuazio handiagoa lortu dutenak lehenetsiko dira. Berdinketak jarraitzen badu,

2. ebaluazio-irizpidean puntuazio handiagoa duena lehenetsiko da, eta, oraindik ere berdinketa badago, 3. ebaluazio-irizpidearen arabera emango da lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, eskabideak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera lehenetsiko da.

Behin-behineko lehen ebazpena aurkeztuko da, eta 10 egun baliodun izango dira alegazioak aurkezteko. Epe hori igarotakoan, alegazioak aztertu ondoren (balego), behin betiko ebazpen-proposamena egingo da.

Eskabideak hautatzean, erreserba-zerrenda bat eratu ahal izango da, puntuazioaren arabera ordenatuta, erakunde onuradunen batek dirulaguntzari uko eginez gero edo aurrekontua handituz gero, Donostia Sustapenak laguntza zerrenda horretan dagoen eskatzaile bati eman ahal izateko, beste deialdirik egin beharrik gabe.

Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko epea 4 hilabetekoa izango da, deialdia ixten den egunetik zenbatzen hasita, eta epe horretan ez dira zenbatuko administrazio-agiriak zuzentzekoaldiak. Laguntza emateko ebazpena ezarritako epean ematen ez bada, ez du esan nahi laguntza eman denik.

Eskaerari baiezkoko ebazpena eman ondoren, EKINN+ programari ekingo zaio, eta fase intentsiborako helburu eta mugari indibidualak markatuko dira (proiektu parte-hartzaile bakoitzaren ibilbide-orria).

Donostia Sustapenak esanbidezko ebazpen baten bidez emango edo ukatuko du laguntza.

Ebazpenak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, eskabide-eranskinean “Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa” apartatuan zehaztutako helbide elektronikora. Horiek ere eskuragarri egongo dira web-aplikazioan, espedientearen barruan.

Eskatzailea ez badago ados emandako ebazpenarekin, alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, gehienez ere hilabeteko epean, ebazpenaren egunetik zenbatzen hasita. Horretarako, Donostia Sustapenarekin jarri beharko du harremanetan, egin beharreko izapideei buruzko informazioa jasotzeko. Donostia Sustapenak erabakitzen duena bete beharko da, eta, hala badagokio, bi alderdiak Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende geratuko dira.

## 10. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastuak **gauzatzeko epea 2026ko urtarrilaren 1etik 2027eko urriaren 30era artekoa izango da**. Diruz lagun daitezkeen gastuak justifikatzeko fakturek ere aldi horretakoak izan beharko dute. Faktura justifikatzaileen ordainketak 2026ko urtarrilaren 1etik 2027eko urriaren 30era bitartean egindakoak izango dira. Fakturek guztiz ordainduta egon beharko dute, onartu ahal izateko. Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, Donostia Sustapenak beste egikaritze- eta justifikazio-epe batzuk hartu ahal izango ditu kontuan.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagun daitezkeen gastuak eskuratzeko kostuak ez du inola ere gaindituko merkatuko balioa.

Justifikaziorako ez dira kontuan izango 100 eurotik beherako (zergarik gabe) gastuen fakturak eta frogagiriak. Gizarte Segurantzako gastuak edo nominak izan ezik.

Txartel, banku-transferentzia edo ordainagirien helbideratze bidez egindako ordainketen egiaztagiriak baino ez dira onartuko. Egiaztagiri horietan, egindako eragiketaren informazio zehatza agertuko da (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data eta abar). Ez da onartuko banku-mugimenduen zerrendarik, ezta BIZUM bidez egindako ordainketarik ere.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikulua aplikatuko zaie diruz lagun daitezkeen gastuei, esanbidez hala aginduta.

Honako gastu hauek ezingo dira finantzatu:

- Gauzaz egindako ordainketak.
- Enpresan ohiko/beti bezalako jarduerak egitea helburu dutenak, alegia, egungo egoerarekin alderatuta, berrikuntzarik edo hobekuntza nabarmenik ez dakartenak edo merkatu berriak irekitzen ez dutenak.
- Oinarrizko ikerketa helburu dutenak, hau da, helburu gisa aplikazio edo erabilera lehenetsirik izan gabe hasten den ikerketa. Beraz, pizgarria eskuratzeko ezinbesteko baldintza izango da helburu praktikoa espezifiko bat eta enpresan izan dezakeen erabilera bilatzea.
- Erakundea indarreko araudira egokitzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatzea.
- Enpresan lehendik dagoen aktibo finko bat (softwarea, aplikazioa, makineria, etab.) hobetzea.
- Web-orriak garatzea, salbu eta proiektu berritzaileko eta lehiakortasunaren hobekuntzarako badira.
- Errepikatzen diren lanak egiteko material berriak eskuratzeko, ibilgetu materialetan inbertsioak egitea eta abar.
- Talde bereko enpresen artean garatutako zerbitzuak; hortaz, ez da barne-fakturazioko prozesurik onartzen.
- Kontabilitatea, liburu-edukitzailatza, auditoria eta zerga-aholkularitzaren inguruko ohiko jarduerak, baldin eta lehiakortasuna hobetzea ekarriko duen proiektu baten garapenari lotutako aholkularitza ez bada.
- Enpresak gerora merkatutako dituen produktu komertzialak eta/edo lehengaiak erostea, ezta laginak egiteko edo ekoizteko produktuak erostea ere.
- Ohiko material suntsikorrak eta bulegoko materiala erostea.
- Gastu arruntak eta, bereziki, horniduren gastuak; argia, ura eta komunikazioak (telefonoa eta Internet)
- Interesak, errekaratuak, zergak eta administrazio-zehapenak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.

- Janari-tiketak, dietak, kilometrajea, gasolina, etab.
- Enpresako langileen soldatak.
- Autonomoen kuotatik eratorritako gastuak.

Oro har, Donostia Sustapenak onesten ez dituen gastu guztiak.

## 11. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Laguntza bi zatitan ordainduko da, “lehen justifikazioa” eta “azken justifikazioa” apartatuetan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

### 11.1 Lehen justifikazioa:

Lehen justifikazioa programaren fase intentsiboa amaitutakoan aurkeztu ahal izango da (aholkularitzaren lehen 4 hilabeteak amaitzean), eta hauek ordaintzeko eskatu ahal izango da:

- Prestasun-laguntza: 5.000 €
- EKINN+ Laguntza partziala edo osoa (20.000 € gehienez)

**Prestasun-laguntzaren** kasuan ordainketa bakarra egingo da, EKINN+ Aholkularitza zerbitzuaren fase intentsiboa amaitu eta ezarritako mugariak lortu ondoren, onuradunak eskuratzeko duen dedikazio-konpromisoa beteta. Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, Sustapenak beste epe bat ezarri ahal izango du.

**EKINN+ Laguntza** ordaintzeko, justifikazio partziala (gastu osoa egin ezin izan den kasuetan) edo justifikazio osoa aurkeztu ahal izango dira.

Donostia Sustapenak justifikazioan aurkeztutako kontzeptuak eta gastuak aztertuko ditu, eta hautagarriak diren ala ez ebaluatuko du.

Prestasun-laguntzaren ordainketa eskatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. **Eranskina: “Ordainketaren eskaera”**  
Gainera, EKINN+ Laguntzari dagozkion gastuak ordaintzeko eskatzen bada, dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:
2. **“Emaiza-memoria” eranskina**, programaren bidez abian jarritako proiektuaren edo jardueraren garapena deskribatzen duena eta enpresak egindako benetako lanari buruzko emaitzak jasotzen dituena. Hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak eman eta ezarri direla frogatzeko nahikoa ebidentzia jaso behar du.
3. **“Finantza-memoria” eranskina.**
4. Diruz lagunduko diren zerbitzu edo produktu kontratatuen **fakturak**, 100 eurotik gorako (zergarik gabe) gastuenak.
5. **Egindako ordainketen egiaztagiria.**

## 11.2 Azken justifikazioa:

**EKINN+ Laguntzaren bidez diruz lagun daitezkeen** eta lehen justifikazioan aurkeztu ez diren **gainerako kontzeptuetarako** eta EKINN+ Laguntza osorako (20.000 euro), azken justifikazio bat aurkeztu beharko da, diruz lagun daitezkeen eta onetsi diren kontzeptu guztiak jasotzen dituen.

Oro har, hauek dira laguntzak justifikatzeko eta ordaintzeko epeak:

### **Azken justifikazioa aurkezteko azken eguna 2027eko urriaren 30a izango da.**

Justifikaziorako ezarritako epea igaro eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ez bada, Donostia Sustapenak dokumentazio hori aurkezteko eskatu ahal izango dio onuradunari, jakinarazpena jaso eta 15 egun naturaleko gehieneko epean. Beste epe hori igaro eta dagokion dokumentazioa aurkezten ez bada, laguntza ez dela onartu ulertuko da, eta, orduan, kobratzeko eskubidea galduko da, edo, kasua bada, jasotako zatia itzuli beharko da.

Ustekabeko eta behar bezala justifikatutako egoeretan, justifikazio-epearen luzapena eskatu ahal izango da, eta haren onarpena Donostia Sustapena-ren balorazioaren mende egongo da; erakunde horrek erabakiko du luzapena baimendu edo ukatu.

Ordainketa bakarra egingo da honako dokumentazio hau aurkeztu ostean:

1. **Eranskina: “Ordainketaren eskaera”:**
2. **“Emaitza-memoria” eranskina**, programaren bidez abian jarritako proiektuaren edo jardueraren garapena deskribatzen duena eta enpresak egindako benetako lanari buruzko emaitzak jasotzen dituen. Hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak eman eta ezarri direla frogatzeko nahikoa ebidentzia jaso behar du, bai eta enpresaren hazkundean izan duen eragin positiboa ere, alderdi guztietan: ekonomian, merkatuko posizionamenduan, bezero berrietan, produktu berritzailearen garapenean eta abarretan.
3. **“Finantza-memoria” eranskina.**
4. Diruz lagunduko diren zerbitzu edo produktu kontratatuen **fakturak**, 100 eurotik gorako (zergarik gabe) gastuenak.
5. **Egindako ordainketen egiaztagiria.**

EKINN+ Laguntza jasotzeko justifikazio partziala edo osoa aurkezteko, eskaera egiteko orduan proiektu propioa edo barne-ekintzaitza proiektua duten ekintzaileen kasuan, **ordainketa egin ahal izateko**, formalizatuta egon behar du enpresaren eraketak Donostian eta bete behar dira 4. artikulua irabazizko jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoentzat edo pertsona juridikoentzat ezarri dituen baldintzak. Kasu horietan, gastua egin dela egiaztatzen duten fakturak eratutako enpresa berriaren izenean jaulki beharko dira.

Horrelakoetan, EKINN+ Laguntza justifikatzeko unean, enpresaren eraketa egiaztatzeko, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Pertsona juridikoa bada, IFKren kopia.
- Pertsona juridikoa bada, eratze-eskritura edo -dokumentuak, estatutuak edo sortze-akta, jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituenak, Dokumentua pertsona juridikoaren motaren arabera dagokion erregistro publikoan behar bezala erregistratuta egongo da, hala badagokio. Berezko nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua aurkeztuko da.
- Autonomoen araubideko edo araubide baliokideko alta-agiriaren kopia.
- Enpresaren banku-datuen eranskina, dagokion banku-erakundeak zigilatua, edo banku-dokumentu baliokidea, banku-erakundeak behar bezala zigilatua.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira.

Dokumentazio guztia aztertu ondoren, benetan jasotako zerbitzuak, osorik edo zati batean, ez badatoz bat onetsitako jarduketekin edo justifikatu diren gastuen kontzeptuekin, justifikatutako jarduketan zati proportzionala baino ez da ordainduko.

## 12. ARTIKULUA: LAGUNTZEN JARRAIPENA ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUKETAK GAUZATZEA

Diruz lagundutako ekintzen eta onetsitako proiektuen jarraipena ekintzak gauzatzen diren bitartean egin ahal izango da, baita amaitutakoan ere.

Donostia Sustapenak jarraipena egiteko beharrezkotzat jotzen duen informazio tekniko edo ekonomiko guztia eskatu ahal izango du, laguntza egikaritzeko eta justifikatzeko prozesuan eskatzen den gutxieneko dokumentazioaz gain.

Laguntzen jarraipena egitean eta justifikatzean lortutako emaitzek esleitu den dirulaguntza murriztea ekar dezakete, baita dirulaguntzarekin bat ez etortzea ere, deialdi honetan eta hurrengoetan.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak oinarri arautzaile hauetan adierazitako epean eta moduan gauzatu behar dira, salbu eta Donostia Sustapenak, justifikatutako arrazoiengatik, kontrakoa baimentzen badu. Kasu horretan, emandako laguntzaren zenbatekoa ere aldatu ahal izango da.

Jarraipenaren emaitzetan, erakunde onuradunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ikusten bada ez direla bete edo oker bete direla laguntzaren emakidari lotutako betebeharrak, datuak faltsutu direla, zehatzak ez diren datuak eman direla, datu batzuk aipatu ez direla edo jasotako diru kopuruetako batzuk edo guztiak laguntzaren helburuak lortzeko erabili ez direla, dagozkion lege-ekintzak hasiko dira, kasua bada, edozein laguntza edo dirulaguntza jasotzeko desgaitzea barne, dagokiona itzultzeko eta berandutze-interesak ordaintzeko betebeharra galarazi gabe.

### 13. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntzen onuradunek beren gain hartuko dituzte DLOren 14. artikuluan jasotako betebeharrak orokorrak. Ondorio horietarako, lege hori bete behar dela esanbidez adierazten da, besteak beste eta bakarrak izan gabe, honako betebeharrak aipatuz:

- a) Ekarpena diruz lagundutako jarduerak egiteko erabiltzea.
- b) Aurkeztutako proiektuaren baldintzak errespetatzea eta betetzea, Donostia Sustapenak esanbidezko baimena eman ezean.
- c) Diruz lagun daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduan eta denboran.
- d) Sustapenak eskatutako datu estatistikoak betetzea, zehazki, programan parte hartzen duten pertsonen mikrodatuei buruzkoak.
- e) Jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, egiaztapen- eta/edo ikuskapen-jarduketan xede izan daitezkeen bitartean, eta, betiere, aplikatzekoa den araudian ezarritako epean.
- f) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilizatzea.
- g) Kontabilitate-liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta dagoenean.
- h) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- i) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar subjektibo zein objektibo aldatu bada, Donostia Sustapenari jakinaraztea.
- j) Donostia Sustapenak, bere funtzioak betez, emandako laguntzei buruz eskatzen duen informazio guztia ematea.
- k) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik jaso bada, horren berri ematea Donostia Sustapenari.
- l) Donostia Sustapena aipatzea laguntza hauen xede diren proiektuak sustatzeko eta hedatzeko jarduketetan. Horretarako, erakundearen irudi instituzionala jarriko da, baita dagokion legenda ere, egingo diren komunikazio euskarrietan (web-orriak, kartelak, mezu elektronikoak eta abar). Europako Gizarte Funtzaren EKINN Harrera programa aipatzea programa honen bidez jasotako *mentoringaren* sustapenean.
- m) Donostia Sustapenak laguntza hauen xede diren proiektuen jarraipena egiteko eta bilakaeraren berri izateko deitzen dituen bilera guztietara joatea.
- n) Donostia Sustapenak jasotako laguntzari dagokionez deitu ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.).
- o) Laguntzaren xede den proiektuan aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein inguruabarren berri ematea Donostia Sustapenari.
- p) EKINN+ programaren indarraldian, proiektuak beste azelerazio- edo *mentoring*-programa batean parte hartuko duela erabakitzen badu edo EKINN+ programarako eskaera egitean horrelako batean parte hartzen badu, Donostia Sustapenari jakinaraztea.
- q) Hala badagokio, Donostia Sustapenarekin lankidetzan aritzea finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia haren esku jarritz.
- r) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- s) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetako baldintzak betetzea.
- t) Donostia Sustapenari baimena ematea enpresa eta I+G+B eragileen direktorio

digitaletan honako hauek argitaratzeko: harremanetarako pertsonaren datuak, jarduera, izen komertziala, logoa, marka eta beste edozein bereizgarri, pertsona onuradunak trafiko ekonomikoan erabiltzen duena. Horretarako, onuradunak elementu horiek adierazitako helburuetarako soilik ustiatzeko lizentzia emango dio Donostia Sustapenari, eta hark modu baketsuan erabiltzea bermatuko du.

- u) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanda) komunikazio-euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mezu elektronikoak, megafonia, etab.), sustapen- eta hedapen-materialetan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan eta abarretan.

Onuradunek laguntza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari testuak itzultzeko eta zuzentzeko (hilean gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira:

<https://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>

## 14. ARTIKULUA. BATERAKO FINANTZAKETA

Programa honen % 40 Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatuko da, Europako Gizarte Funtsaren EAEko 2021-2027 programaren esparruan, EKINN HARRERA programarako.

## 15. ARTIKULUA. ITZULKETA

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunak jasotako laguntza ekonomikoa eta diruaren legezko interesa —zenbatekoak ordaindu diren unetik aurrera sortua— itzuli beharko ditu, honako kasu hauetan:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu larrian eta/edo errepikatuan ez betetzea. Ez-betetze larritzat eta/edo errepikatutzat joko da oinarri hauetako betebeharren bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako edozein datu, ziurtagiri, txosten eta/edo dokumentazio faltsua izatea edo faltsutzea; eta/edo oinarri hauen esparruan jasotako laguntza osoa edo zati bat aurreikusitakoak ez diren helburuetara bideratzea.
- Laguntzaren xedea oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra ez betetzea, eta justifikazio nahikoa ez ematea.
- Onuradunaren jardueran egin daitezkeen egiaztatze- eta ikuskatze-jardueri dagokienez, aurka egitea, aitzakiak jartzea, eragozpenak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitate-, erregistro- edo dokumentu-betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta, horren ondorioz, ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularutasuna, edo helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzea, izan horiek publikoak edo pribatuak, Estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.
- Jarduera gainfinantzatuz gero, gainfinantzatutako zenbatekoan.
- Kontratua deuseztatzea, objektiboak edo enplegatzailearenak ez diren arrazoiengatik.

Aurrekoa kontuan edukita, laguntza hauek jasotzeko eskatzen diren baldintzak uneoro bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak horiek itzultzeko eskatu ahal izango du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Orobat, ez-betetze larrienen kasuan (hala nola datuak faltsutzea edo jasotako laguntza osoa edo haren zati bat beste helburu batera bideratzea), Donostia Sustapena SAK ahalmena izango du emandako laguntza baliogabetzeko, jasotako zenbateko guztiak itzularazteko, eta, horrez gain, jasotako zenbatekoaren bost halako ordaintzeko eskatzeko.

Dirulaguntza itzuli beharko da eta Donostia Sustapena SAK onuradunari jakinaraziko dio oinarri hauetan ezarritako arazoiren bat gertatzen dela, jarraian deskribatutako baldintzetan.

Itzulketa laurogeita hamar egun naturaleko epean egin beharko da, Donostia Sustapena SAK onuradunari artikulua honetan aurreikusitako itzulketa-arazoiren bat dagoela burofax bidez jakinarazten dionetik zenbatzen hasita.

Era berean, eta aurreko paragrafoetan ezarritakoaz gain, Donostia Sustapena SAK eskubidea izango du BI (2) URTEKO epean Donostia Sustapena SAK eskaintako beste edozein laguntza edo onuratan parte hartzea galarazteko oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat zabarkeriaz bete ez duten edo beren jokabidearen ondorioz fede onaren oinarritzko arauak urratu dituzten pertsona fisiko edo juridikoei.

## 16. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoari jarraikiz, emandako datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko ditu; hura izango da tratamenduaren arduraduna, eta Donostia Sustapena SAK kudeatuko du informazioa, tratamenduaren eragilea den aldetik.

Tratamenduaren helburua zure laguntza-eskaera izapidetzea eta kudeatzea da.

Tratamenduaren zilegitasun-oinarri dira DBEOren 6.1.e) artikulua (“Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko”); 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituena; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo dagozkien eskabide-inprimakietan hala zehazten bada, datu pertsonalei buruz eskatutako informazioa ematea nahitaezkoa izango da. Hala, datu horiek ez badira ematen edo datu okerrak ematen badira, ezingo da eskaera kudeatu.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak Estatuko edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahal izango zaizkie, baldin eta laguntza horiek batera finantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori erabat beharrezkoa denean, eta emakida kudeatzeko soilik.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela pertsona onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea; izan ere, datu horiek, baita emandako laguntzaren zenbatekoa ere, Donostia Sustapenaren webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Ez dago aurreikusita hirugarrenei datuen komunikazio gehigarriak egingo zaienik, legezko betebeharra izan ezik, eta ez dago aurreikusita datuen nazioarteko transferentziarik egingo denik.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak horiek biltzeko helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira. Artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Ukitutako pertsonak datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuak babesteko indarrean dagoen araudian jasotako beste eskubide batzuk ere, hala dagokionean, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuaren bitartez (Ijente kalea 1, 20003 Donostia).

Interesdunak bere eskubideak baliatzeko garaian behar bezalako arreta jaso ez badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Gasteiz. Dena den, aldeztatik eta nahi izanez gero, datuen babeserako Donostiako ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango da: [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).

## 17. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA.

### Indarrean jartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira, eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Interesdunak eskabidea aurkezten badute, oinarriak erabat onartzen dituzte.

### Erantzukizunetik salbustea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortzen diren kalte pertsonalen eta/edo materialen erantzule bakarra. Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horientatik.

## 18. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzak oinarri hauetan jasotako arauen arabera arautuko dira, eta, osagarri gisa, DLOn eta hura garatzeko erregelamenduan jasotako arauen arabera —

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, DLOren Erregelamendua (aurrerantzean, DLOE) onesten duena—, nahiz eta DLOn jasotako kudeaketa-printzipioei eta 20. artikuluan aipatzen diren informazio-printzipioei dagokienez soilik izan, hori guztia lege horren 3.2 artikuluko bigarren paragrafoaren arabera, hark ezartzen baitu aplikazio hori.

Bestela, DLO eta DLOE oinarriotan lege-testu horien berariazko aipamena egiten denean bakarrik aplikatu beharko dira.

Donostia, sinaduraren egunean

### **Ane Oyarbide**

Ekonomia eta Tokiko Enpleguko zinegotzi delegatua.